

BERRIGARA

15. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, ekainak 9



Argazkiak ikusgai

Bergara Hiria lehiaketako lanak Kultur Etxean

Autoberezi



FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75

EZAGUTU!!



**Integrée Medical Point-en
abantailak LILURA Edertze
Institutuan**

Guadalupe Garciak, zuzendariak, informatuko zaitu, inolako konpromezurik gabe

***INTEGRÉEn, zirujia estetikoaren
teknikarik aurreratuenak garatzen dira,
dermoestetizistaren laguntzaz***



◀ Lipoeskultura ultrasonikoa eta liposukzioa, eta masaia drenantea.

▶ Aurpegi eta lepoko lifting osoa, eta aplikazio kosmetologikoa eta masaia.



▶ Bularrak haunditzeko kirurgia-ebakuntza gehi azalaren tonifikazioa, aplikazio kosmetologiko berezituarekin.

**SOLARIUMerako eskaintza bereziak:
Udaberri eta udan ERDIPREZIOAN!!
Bisita gaitzazu eta informatuko zaitugu**

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxe: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate
Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Portadako argazkia:

Benito Canteroren
"Lekeitio" izenekoa

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.900 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du


Z E B E R R I D A ?

ALFONSO ALONSO Udaltzainetako burua

- Ezer aipagarririk gertatu da Pazkuetan?

- Beste urte batzurekin konparatuz aurtengoak jai lasaiagoak izan dira. Gauza haundirik ez da gertatu. Zerbait destakatzekotan, larunbat gauean su eman zieten Mizpildin dauden kontenedoreei, egun berdinean koktel molotov bat agertu zen Epaitegiaren aurrean eta Ertzaintzak erretiratu egin zuten, ostiralean kotxe istripu bat izan zen Angiozarrerako bidean eta bi zauritu izan ziren...

Bestalde, lapurreta batzuk ere izan dira: bati Merkatu ondoan kotxetik dirua eta dokumentazioa kendu zioten eta furgoneta bati ere kanpoko ispilua desmontatu zioten. Azkenik, burruka pa-



re bat ere izan dira, bata txoznetan (zauritu bat Arrasatera eraman zuten) eta bestea Iralan, baina ezer larririk ez.

- Aurreko urteetan baino jende gehiago?

- Zedozer gutxiago. Ostiral gauean jende asko ibili zen baina hortik aurrera gero eta gutxiago. Garbiketetan ere nabaritzen zen alde.

"Aurreko urteekin konparatuz aurtengo jaiak lasaiak izan dira"

I T U R R I O N E T I K

Altos Hornoseko materiala sailkatzeko hitzarmena sinatuko da

Eusko Ikaskuntza eta Udaleko Kultura Batzordeko ordezkariak biltzekoak ziren gaur arratsaldean Udalak jaso zuen Altos Hornoseko materiala klasifikatzeko eta ordenatzeko hitzarmen bat sinatu asmoz. Aipatutako proiektua Eusko Ikaskuntzak udal ezberdinekin sinatzen duen kolaborazio hitzarmen barruan kokatzen da. Aurretik Udalak museoaren inguruko gai bat proposatu zion Eusko Ikaskuntzari baina garestiegia zenez, azkenik baztertuta geratu zen. Orain, 400.000 pezeta inguruko aurrekontuarekin, Eusko Ikaskuntzak Altos Hornoseko materiala sailkatzeko lana egingo du.

E S A N D U T E

"Azken dantzari Egunean dantza poliki poliki gora doala ikusi zen. Dantzataldeetan lan gehiago egiten dela argi dago. Kontua da kultur arloko ardi beltza dela dantza eta dantzak gora egiteko oso garrantzitsua da komunikabideek txapelketen berri ematea"

EDU MURUA
Dantzaria
EGUNKARIA

"Agustin Aranzabal Realeko azken internazionala dugu. Debutariak ez zuen estreinuaren nerbiorik jasan. Egiten dakiena egitera mugatu zen. Motzean segurtasun guztiz jokatu, dozena bat pase sakon bikainak marraztu, goi goian presionatu eta bere hegaletik gora egin. Aranzabalen estreinua amaiera zorionsua izan zuen eta orain, hurrengo ikasturtean, aukera gehiago izatea espero dugu"

FERNANDO BECERRIL
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

**CAUSA JUSTA**

Ostirala: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.30.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**MORIRAS EN CHAFARINAS**

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

**EL REY DEL RÍO**

Osteguna, zine-kluba: 20.00

Zinea

▼▼ **Sean Connery** aktore ezagunak protagonizatutako azken filmea. Bertan, ospe handiko abokatu baten papera egiten du. Hilketa zigorraren kontrako borrokatzaile amorratua, zortzi urte aurretik gertatutako kasu baten hilketa sententzia bat errekurritzera ausartuko da. Atxiloketa egin zuen poliziaren partetik oztopo ugari izango ditu eta duen guztia arriskuan dagoela konturatuko da.

▼▼ **Fernando Lalanaren** nobelan jasotzen denez, soldadutza abentura arriskutsua izan daiteke. Melillako koartelean bi heriotza gertatu ondoren, **Contreras** kapitainak (**Oscar Ladoire**) gertakizunen ikerketa aginduko dio soldadu gazte bati (**Javier Albala**). Honek, Jaimeren (**Jorge Sanz**) laguntzaz aurre egingo du jokoan dagoen guztia jakin arte...

▼▼ **Manuel Gutiérrez Aragón** zuzendariak eginiko azken filmak harrera ona izan du publiko eta kritikaren artean. Arrantzaren gaia aitzakitzat hartuz, iparraldean bizi den familia baten gorabeherak azaltzen zaizkigu. **Alfredo Landa**, **Carmen Maura**, **Ana Alvarez** eta **Achero Mañas** erreperto buruan.

Deiak

▼ **1943**an jaiotako bergararren anaiarteko eguna ekainaren 18an. Izen-ematea ekainaren 15era arte 76 22 90 (Maher) eta 76 53 22 (Fernández) telefonoetan.

▼ **AEK.** "Euskarak behar duelako, akordioak oraintxe" lemapelan manifestazioa bihar Bilbon. Irteera 15.30etan bus geltokitik. Izen-ematea Pol-Pol, Kortazar eta AEKn.

▼ **Bideoa.** "Txip aparta" haurrentzako bideoa bihar 11etan Kultur Etxean.

▼ **Egunkaria Festa** igandean Arrasaten.

▼ **Elosuko** Auzo Batzordeak deituta, auzo alkatea aukeratzeko bilera bihar larunbata, ekainak 10, 21.30etan Elurmendi elkarteetan.

Ogia

▼ **Igandea 11:** Ogizun.

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

▼ **Ostirala 9:** Mozos.

▼ **Larunbata 10:** Camacho.

▼ **Igandea 11:** Camacho.

▼ **Astelehena 12:** Puy.

▼ **Asteartea 13:** Guallar.

▼ **Asteazkena 14:** Estella.

▼ **Osteguna 15:** Mozos.

MUJIKA**Burdinaki denda**

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

ETXAGI**JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Argazkiak ikusgai

Bergara Hiria lehiaketako argazkiak Kultur Etxean

Igandera arte ikusgai izango dira Kultur Etxeko erakusaretoan Bergara Hiria XI. Argazki Lehiaketako lanik onenak.

Aurtengo edizioan 46 argazkilarik parte hartu zuten (22 koloretan eta 24 zuribeltzean), guztira 147 argazki aurkeztuz (72 koloretan eta 75 zuribeltzean). Epaimahaiak emandako erabakian bergararrak nagusitu ziren: koloretan lau sariak eman zituzten eta zuribeltzean beste bat: Dani Santosek koloretako lehena eta zuribeltzeko herriko onena lortu zituen, Agustin Gurrutxaga bigarrena izan zen koloretan eta hirugarrena zuribeltzean, Hilario Azkargortak hirugarren saria eskuratu zuen koloretan eta herriko onena, berriz, Natxo Millan izan zen. Gainontzeko sariak Berangoko Javier Pedro Fernández Ferrerases (lehena zuribeltzean), eta Javier Martin Martin gastaitarrak (bigarrena) irabazi dituzte.

Benito Cantero Pol-Pol Argazki taldeko kideak azaltzen digunez, "maila ona izan da aur-



Natxo Millanen "Cascada II" argazkia, herriko onena koloretan.

tengo edizioan nabiz eta iaiz baino partaide gutxiago izan. Aurreko urtean 190 argazki jaso genituen baina pozik gaudetzarekin, kanpotar askok

parte hartu baitu, herriko beste gutxigorabehera. Sarietarako dagokienez pozik gaudetzekin. Koloretan sari guztiak lortu ditugu baina ez da harrizkoa beste lehia-

keta batzutan ere antzera ibiltzen garelako, beti gaude hor aurrean. Hori bai, maila oso ona egon da bi kategorietan eta zaila izan zaio epaimahari erabakia hartzea".

Sari banaketa bihar, larunbata, arratsaldeko 7etan egingo da Kultur Etxean. Kategoria bakoitzeko lehen hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak eta Tere Guenetxearen eskultura bana jasoko dute. Herriko onenek 10.000 pezeta eta eskultura eskuratuko dituzte. Erakusketa igandera arte izango da zabalik, 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara. Erakusketan 40 lan ikus daitezke, tartean J. A. Gurrutxaga, Dani Santos, Dionisio Nogales, J. L. Feo, Hilario Azkargorta, Natxo Millán, Benito Cantero, Juan A. Unzurrunzaga, Jose Aguayo, Rafael Salazar eta Juan Tabares bergararrenak.

46 argazkilarik hartu dute parte; sari banaketa bihar egingo da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



LASA
Jatetxea

OZAITIA JAUREGIA Ynoa: 76 20 55 Faxa: 76 20 29

Karakate zarraski baten bidean

1995eko otsailaren 13an EAJ eta PSE-EEK osatutako Gobernu Batzordeak Karakateko lurretan Ertzaintzarentzako Komunikabide zentroaren obrei hasiera emateko baimena eman zion Lakua-ko Gobernuari. Aipaturiko eraikuntzak 290 metro karratuko azalera izango du, non 70 metroko altuera izango duen antena bat jarriko den.

Baimen honetan Udaletxeko Teknikariak Ingurugiroari egingo zaion kaltea onartzen du, honek inguruaren berezko izaera naturala apurtzen baitu.

Antena hau, Ertzaintzaren interesak asetzeko besterik ez da, gaur egungo instalazioak egokiak baitira edozein telebista kanal ikusi ahal izateko.

Guzti honetan tamalgarriena zera da, soraluzetarrak obrak hasiak zeudelarik kaleko zurrumurruetatik jakin dutela eraikuntza honen berri. Ezagutzen ez dugun zerbait izkutatu nahi al digute?

Ezin dugu ahaztu 1.377 metro karratuko lursaila hartuko duen proiektu honek gure mendi eta ingurua deuseztatuko dituela. Guzti hau Karakatera joango den edonorentzako ez da batere atsegina suertatuko.

KARAKATEREN ALDEKO PLATAFORMA


Eskerrik asko

JARDUNeko Gazte taldeak eta Olinpiada Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie Pazkuetako martitzenean Herri Bazkarian parte hartu zuten guztiei. Halaber, ezin ditugu ahaztu Herri Bazkaria aurrera ateratzeko laguntza eman ziguten hainbat tabernari eta Lete Arraindegiko jabeak, azken hauek edariak freskatzeko izotza eman ziguten. Ezin ahaztu, bazkalostean mahaiak eta beselako trasteak jasotzen lagundu ziguten guztiak. Guztiei mila esker.

OLINPIADA BATZORDEA ETA JARDUNEKO GAZTE TALDEA, HERRI BAZKARIKO ANTOLATZAILEAK

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & ION ALVAREZ



◆ **Lantegi eskola**

Lantegi Eskolan izena emateko epea ekainaren 16an amaituko da. Argibide gehiago Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuan (77 91 65 telefonoa).

◆ **Musika Eskola**

Igandeko Udaberriko Kontzertuko herri bazkaria bertan behera geratu da. Txartelak erosi zituztenei Musika Eskolako bulegoan bueltatuko zaie dirua.

JAIOTAKOAK

Ane Zangitu Martínez

Ekainak 1

Egoi García Garzo

Ekainak 2

Daniel Díez Larrañaga

Ekainak 3

HILDAKOAK

Marcos Berrio-Otxoa Azkonizaga

Ekainak 1, 73 urte

Kose Makazaga Aldai

Ekainak 1, 67 urte

Maria Natividad Iriarte Elkoro

Ekainak 2

Organo emaleak lortzeko kanpaina igandean Bergaran

ALCERek mahai bat jarriko du San Martin plazan

Egunotan ospatzen ari den Organo Emaleen Astearen barruan, ALCER gultzurrunetako gaixoen elkarteak organo emaleak jasotzeko mahai bat jarriko du igande goizean Plazan, 11etatik ordubietara. Maria Ignacia Usandizaga ALCEReko ardurdunaren hitzetan, "Bergaran 8 lagunek izan dugu gultzurrun transplantea eta neu naiz dialisian nagoen bakarra. 4 urte t'erdi egon naiz transplantatutako gultzurrunarekin eta orain huts egiten hasi da. Dena den, esan behar da transplantea jasotzen dutenek bizitza askoz hobea egiteko aukera izaten dutela".



Bergaran organo emale dextente dira Usandiza-



Herritarren laguntza lortu nahi dute igandean ALCERek.

gak azaltzen digunez; "orain arte erantzun ona jaso dugu urtero egindako kanpainetan. Jendeari kolaboratzeko eskatu nahi genioke eta igandean plazara hurbiltzeko aukerarik ez dutenek herriko farmazie-

tan jaso abal izango dituzte inpresok. Bertan nahi duten organoa emateko konpromezua hartu dezakete: odola, begiak, medula...etab., nahi duten organoa aukeratu dezakete. Jendea kontzientziatu behar da".



Aurreko asteko alean, udal hauteskunderi buruzko informazioa jasotzen zen orrialdeetan huts bat azaltzen zen indar politikoek azken bozketetan izan dituzten emaitzekin egindako botu bilakaerari buruzko grafikoetan. Hain zuzen ere, EA eta PSE-EEren grafikoak nahastu egin genituen, EAren grafikoan PSE-EE jarri genuen eta PSE-EErean EA. Alderdi bakoitzari dagokion grafikoa zuzenduta ikus dezakezue gopikaldean. Barkamenak eskatu nahi dizkiegu EAri eta PSE-EEri, eta irakurleei izandako huts honengatik.




72 neska-mutikok hartu zuten parte zapatu goizean **XV. haurren marrazki eta margo lehiaketan**. Aurten BEARTEk antolatu du Udalaren laguntzaz. Marrazkiei dagokienez, sarituak honako hauek izan ziren: 9 urtez azpikoetan Garikoitz Arribasek irabazi zuen. 9, 10 eta 11 urtekoen atalean, berriz, Iñaki Mondragonek eraman zuen lehen saria. 12, 13 eta 14 urtekoen artean, azkenik, Xabier Mondragon izan zen onena epaimahaiaren iritziz. Pintura alorrean, Iñigo Araiztegi izan zen 9 urtez azpikoetatik onena; Irene Urzelaik eraman zuen 9, 10 eta 11 urtekoen kategoriako lehen saria eta Gorka Unzuetak 12, 13 eta 14 urtekoen sailean irabazi zuen.



Azkoitiako Azpitarte anai-arrebek eskuratu zuten **Euskadiko Dantza Askatuko Bikote Txapelketa** 433,5 puntu lortuz. Xabi Egidazu eta Irantzu Lizarralde bergararrak bigarren izan zireñ (400 puntu), Mederi eta Leire lezotarrak hirugarren (377,5) eta laugarren postua Xabier zegamarrak eta Janire bergararrak osatutako bikotearentzat (375,5) izan zen.



Jaolatzela elkarteak irabazi zuen **elkarteen arteko sukaldaritzaren lehiaketa**. 10 elkarte hartu zuten parte eta Koldo Lasa sukaldariak, Valentin Moreno arrasatearrak eta Juanjo Arriaranek osatzen zuten epai-mahaiak Jaolatzaren makailua pil-pilean izendatu zuen irabazle. Bigarren San Juan elkarte eta hirugarren tokian Gure Ametsa sailkatu ziren.



Sarrera ona izan zen igandean **Zezenzaleak taldeak antolatutako txekorketan**. Juan Diego salamancarra belarri bat eraman zuen zezen batekin eta bigarrenaren ez zuen ezer lortu. Marco Oyarzabal naparrak, berriz, belarri eraman zituen zezen batekin egindako faena onari esker. Anekdotak bezala, zezen batek prakak apuratzeko zizkion naparrari eta bakero batzuk jantzi behar izan zituen bere faena amaitzeko. Ganadutegiari dagokienez antolatzaileen ustetan, lau zezenetatik bi ziren onak.



Giro atsegina izan zen astearteko **herri bazkarian** Plazan. 150 lagun inguru bildu ziren Jardunek eta Olinpiada Batzordeak antolatutako bazkarian eta, koadrila



ezberdinen artean, jaigiroa eta umorea izan ziren protagonistak. Bazkalostean koadrilek kalejira egin zuten herriko kaleak alaituz.

X. Literatur lehiaketako sariak

banatu ziren igande goizean Zabalotegiko aretoan. Lehen taldean, Izargi Mas izan zen irabazlea. 2. taldean, Aitor Ugarte; 3.ean, Markel Lete; 4. taldean, Jon Alvarez; 5.ean Iñigo Muruamendiaraz eta 6. taldean Roberto Eizagirre.



Herriko 16 koadrilak hartu zuten parte Jarduneko Gazte Taldeak antolatutako **IV. Brusa Lehiaketan**. 14 urtetik beherakoen artean argazkiko neska koadrila izan

zen irabazlea. Beren esaldia, "Euskaldunak euskaraz, bergaratarrak euskaraz, eta mesedez, Bergarako jaijetan denok bertan". Nagusietan, berriz, katalanen antzera, giza zutabe hori osatu zuten mutilek eraman zuten lehen saria "Gu gara gazteak, euskararen zutabeak" esaldia eta argazki sinpatikoarekin.

■ 52 tiratzaile izan ziren asteartean San Juanen jokaturako herriko **plater tiraketan**. Gehien nabarmendu zirenak Hilario Aranzabal, Manuel Gimber, Juaristi eta Ramón Iraegi izan ziren. Bestalde, bezperan uso tiraketa egin zen. Goizean, herritarren arteko tiradan (44 partaide), Jesus Urbina izan zen irabazlea Unai Garmendia gaztearen aurretik. Arratsaldean, nazioarteko tiradan (82 partaide), Camiruega bizkaitarra nagusitu zen eta herriko onenak Mikel Igarza, Ramón Iraegi eta Rafael Gallastegi izan genituen.

■ **Eskolarteko kiroltako finalak** ostiral arratsaldean jokatu ziren.

Txapeldunak honako hauek izan ziren:

Benjamin mailako mutilen artean, Aranzazi Ikastola A. Saskibaloian, Aranzadi Ikastola B. Eskubaloian, azkenik, Aranzadi Ikastola D Alebin mailako mutilen artean, berriz, futboleant, Antzuola B izan zen txapeldun. Eskubaloian, berriz, Aranzadi Ikastola F taldeak irabazi zuen eta saskibaloian, Aranzadi Ikastola E izan zen txapeldun. Bukatzeko, nesken artean, alebin mailan, Mariaren Lagundia A izan zen eskubaloiko garaile.

■ EAren Alkartetxeko balkoitik zintzilik zegoen **ikurriña oztu** egin zuen gazte batek astelehen goizaldean. Barrenkaletik balkoiraino eskalatu, makilatik ikurriña kendu eta eraman egin zuen.

■ Ikusmin haundia sortu zuen ostiral gauean **Bergarako ereserkiaren estreinua** zela eta Udal Musika Bandak Frontoian eman zuen kontzertuak. Herriko himnoaz gain, elkarteetako martxak ere eskaini zituen. Bandak eta 350 bat herritarrez osatutako abesbatzak Bergarako ereserkia eskaini zutenean entzun ziren txalorik gehien.

B • E • R •

Aranzadi Ikastola

IKA

Gaia landuz.....

6. maila bukatzen ari da

Batzuk ekainaren 14an oporrak hartuko dituzte eta finalak dituztenek 15, 16, 19 eta 20an azterketak egingo dituzte. Baina kurtso bukaerak badu zerbait ona ere, urteroko irteera, alegia. Ekainaren 8an, beraz, Valderejora joango gara egun pasa. Parke natural bat denez, animaliak

egongo dira eta isilik ibili beharko dugu, bertako biztanleak ez izutzeko. Parke hau Espejo ondoan dago, Burgoseko mugan, 700 metrotako altueran kokatua. Oso polita dela dirudi, bideoan ikusi dugunez, behintzat, eta oso ondo pasatzeko asmoa dugu.

**AGUR,
SEIGARREN
MAILA**

Agur, seigarren maila ni banoa hemendik denok pozik zorutzen hau bukatzeagatik gabiltza enpoiatzen aprobateagatik dena aprobatu ta agur betidanik.

6. D

Seigarren maila bukatzeko egun gutxi falta direnean, finalak hasiko dira eta ikasle guztiok oso beldurturik gaude notak jasotzeko.

Ze iritzi daukazu.....JAIEZ?



**Nerea Mujika
11 urte**

"Denetarik egon da eta denon gustoa egingo zela pentsatzen dut"



**Eneritz Eguren
12 urte**

"Oso ondo pasa ditut; baina motzegiak izan dira"



**Ainhoa Muñoz
11 urte**

"Barrakak garesti samarrak eta gaueko dantzaldian izugarrizko ambientea"



**Ane Alberdi
11 urte**

"Primerakoak; baina haurrendako zezen txikiak bota ditut faltan"

.....9 galdera motz

Txisteak

Iñaki Mujika, Aranzadi ikastolako maixua da eta 9 galdera motz hauei erantzuteko prest da.



Iñaki Mujika maixua

- 1 Zenbat urte dituzu?**
36.
- 2 Non egin zenuen magisteritza?**
Donostian.
- 3 Zenbat asignatura ematen dituzu?**
Hiru: Natura, Teknologia eta Marrazketa.
- 4 Noiztik Teknologia ematen?**
Hiru urte daramatzat.
- 5 Atsegina al da ikasleentzat Teknologia?**
Baietz suposatzen dut.
- 6 Umore onekoa al zara?**
Ez.
- 7 Zein kirol gustatzen zaizu?**
Saskibaloia.
- 8 Saskibaloiko zein jokalaria?**
Angulo.
- 9 Bergarako jaietan hemen izan al zara?**
Bai, derrigortuta.

Joseba Herran

ZEZENZALEA

- Gustatzen zaizkizu zezenak?
- Bai, horixe, asko.
- Behia izango zara orduan.

ORDUAREKIN BUELTAKA

- Aizu, ze ordu da?
- Hamabiak
- Oi, ze berandu.
- Galdetzea zenuen lehenago.

HAU ATRAKO BAT DA!!

- Aizu jauna, ikusi al duzu goardiarik hemen?
- Ez, bakar bat ere ez dago hemen.
- Orduan, emaidazu soinean daramazun guztia.

Jolasean.....

Hizki Zopa

Ondoko hizki zopa honetan Espainiako 8 Elkarte Autonomo daude. Animo eta ia aurkitzen dituzun.


- SOLUZIOAK:**
- VALENTZIA
 - MADRIL
 - GALIZIA
 - MURCIA
 - EXTREMADURA
 - ANDALUSIA
 - KANTABRIA
 - ARAGOA

M	A	Z	E	G	G	A	L	I	Z	I	A	K
A	U	B	A	G	J	O	N	E	A	D	N	A
R	K	R	I	P	O	V	Z	A	G	L	D	N
U	S	D	Z	G	H	A	I	K	X	U	A	T
D	J	L	T	I	M	L	B	O	B	U	L	A
A	S	B	R	G	A	E	I	K	M	O	U	B
M	R	T	U	X	A	N	D	E	H	J	S	R
E	L	N	M	P	D	T	E	G	I	K	I	I
R	B	E	F	H	J	Z	L	N	O	R	A	A
T	S	U	Z	X	E	I	N	X	A	E	G	I
S	X	J	G	K	M	A	D	R	I	L	N	P
E	I	L	A	R	A	G	O	A	A	O	N	Z
O	G	U	L	M	O	I	T	X	J	O	N	E

IGERI ABIADURAKO EUSKALERRIKO TXAPELKETA

TOKIA: Agorrosingo Udal Igerilekuak

EGUNAK: 1995eko Ekainak 10



ANTOLATZAILEA: Bergara Igeri Elkarte
Euskadiko Igeri Elkarte

LAGUNTZAILEA: Bergarako Udala

Urcelay
HARATEGIA

Ibargarai, 16 • BERGARA
Tel. 76 37 77 - 76 00 45

EL DIARIO VASCO

Central Hispano

Construcciones Metálicas
ERROTA - GAIN

Altos Hornos - Azkarruntz Auzoa
Teléfono 76 32 40 - Fax 76 32 41
Particular: Bolu, 49 - Teléfono 76 29 56
BERGARA

EGUREN PINTURAK

Pinturak eta Paperak

Irala Kalea, 2/g • BERGARA
Tel. 76 33 01

HALTZARI

DISTRIBUIDOR EXCLUSIVO DE FAGOR MUEBLE
EQUIPAMIENTO INTEGRAL DE COCINA

Bolu, 24 bajo • BERGARA
Tel. 76 30 57

Zatoia
Boutique

Barrenkale, 4 - Teléfono 76 18 14 - BERGARA

TRI TOR, S. I.

Barrio Altos Hornos (Azkarruntz Auzoa)
Teléfonos: 76 15 87 - 76 32 08 - 76 49 17
Fax: 76 59 46
BERGARA

auto-sonido
AGUSTIN

CARBURACION
ACCESORIOS DEL AUTOMOVIL

Uribarri Etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel. 79 73 58

TXURRUKA AUTOAK, S.L.
Agencia Peugeot

SERVICIO DE TAXI
MICROBUSES

Haitz Iturri, 5 - Bº S. Lorenzo • 20570 BERGARA
Tel. Taller (943) 76 12 36 • Tel. Ventas (943) 76 09 30

TXUKUN

BOUTIQUE GASTRONOMICA

Fraiskozuri, 6 • BERGARA
Tel. 76 51 62

CONSTRUCCIONES

Artzamendi, S. A.

Burdiñate, 5 bajo - Teléfono 76 27 58
BERGARA

JAKINA

BAÑOS • CERAMICA • COCINAS

Poligono Industrial San Lorenzo
Amilaga, 10 bajo
Tel. 76 03 30 • Fax 76 02 91
BERGARA

Hierros Naparra, S. A.

Bº Altos Hornos
Teléfs. (943) 76 57 28 - 76 58 40
Fax (943) 76 04 30

20570 BERGARA
(Gipuzkoa)

Bodegas y Suministros Ariñan, S.L.

Lopez Greda

Amilaga, 5 • Apartado,
Bodega: (943) 76 27 76 - 76 31
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Mendia garbi

Bakoitzak sortzen duen zaborra norberak jaitsi



Inguruko mendietako aisialdirako guneak ez dira askotan oso garbi izaten.

Gaur hasi da Arrolak, Antzuolako mendizale taldeak, antolatuta Mendia Garbi kanpaina. Irailaren 17a bitartean, nahi duen orok har dezake parte jendea sentsibilizatzeko eta atsedean tokiak garbitzeko kanpaina honetan. Horretarako nahikoa da Arrolako batzordeko edonorengana jotzea.

Ekainaren 5ean ingurugiroaren nazioarteko eguna izanik, makina batak izan zuen ingurugiroa gogoan. Arrolak, ingurugiroa ez du bakarrik urtean behin kontutan izaten; horren lekuko dugu gaur hasi duen kanpaina.

Atsedean tokiak garbi

Mendia garbi kanpaina

atseden tokietara mugatuko da. Antzuolan lau daude, Korrostarratzu, Azaldegietan, Gorla eta Trekutz, baina Boton ere garbituko da, horretarako prestatuta ez egon arren, atsedean toki funtzioa betetzen baitu. Xabier Legorburu Arrolako partaideak esan digunez, Antzuolan atsedean toki ugari eta gertu samarrean dau-

de: "Oso kontzentratuta daude denak. Gebienak, Deskarga eta Gorla bitartean".

Zikinen: Trekutz eta Korrostarratzu

Toki horietan, atsedean toki egin zirenetik, hau da, mahaiak eta erretegiak ipini zirenetik, zaborra pilatu baino ez da egin. Garbien dagoena Gorla da, "Jende gutxi ibiltzen da, eta jakina, garbi dago. Azaldegietan pista egin dutenetik sekulako aldaketa ikusi da, lehen ez zegoen ia zaborrik eta orain... Hala ere, zaborrik gebien Trekutz eta Korrostarratzun dago. Era guztietako zaborra dago: latak, plastikoak, paperak, aluminiozko papera eta janariarekin zerikusia duen edozer gauza botatzen du jendeak; erretegiatan egindako suak ateratako errautsa ere badago, kondoiak ere behin baino gehiagotan aurkitu ditugu".



Gorlara joateko kamino bazterra, paperez beteta.

Helburua: Mendia garbi edukitzea.

Arrolak ingurugiroaren kalteaz jabetu eta arazoari aurre egiteko premia bizia ikusi zuen. Zerbait egin nahi horretan burutu zen iaz sasoi berezuan lehenengo kanpaina. "Iaz oso jende gutxi izan zuen kanpainaren berri eta aurten eginbeharrekoari gogorrago heltzeko konpromezua hartu dugu".

Hauexek dira Arrolak dituen helburuak: alde batetik mendian dabilen jendearengan naturarekiko begirunezko jarrera bultzatzea eta horretarako heziketa lana egitea; eta bestetik, herriko atsedentokiak garbitzea. "Heziketa lan handia da-

IÑAKI IRIZAR

Mendia Bizirik taldekoa

■ "Herrietan aspalditik antolatzen dira mendiak garbitzeko irteerak. Arrolaren lanak, ordea, ikuspegi berria du, jendea sentsibilizatzea duelako helburu. Beraz, oso positiboa eta baloratzen da. Argi dagoena da atsedentokiak garbitzea ez dela mendizale talde baten zeregina, bere lana mendian dagoen zikinkeria salatu eta jendea sentsibilizatzea da. Arazoari aurre egiteko jendeak erantzun egin behar du, bestela administrazioak garbitu beharko du, berak jarri bait ditu mendian erretegiak eta mahaiaik".

■ "Bergaran okerren San Martzial dago. San Martzial egunean mahaiaik bertan uzten dira eta urte guztian bertan egoten dira, edozein modutan gainera: zuhaitzei lotuta, e.a. Nire ustez, mahaiena arautu egin beharko litzateke".

go. Toki bat zikin edo garbi egonda zer nolako aldea dagoen erakutsi beharra dago. Badirudi jendea berdin zaiola zaborra edozein tokitan lagatzea".


Kanpaina nola burutu

"Kanpainak irauten duen astebukaera eta jai egun guztietan, mendia garbi gordetzeko gomendioak azaltzen dituen foiletoa eta zabor zorrotak banatuko dira atsedentokietako jendearen artean. Jendea foiletoak banatzearekin batera, gomendioak azalduko zaizkio eta, gomendio horiek jarraitu ezean atsedentokia nola geratuko litzatekeen erakutsiko da argazki bidez".

Foiletoak ikusi eta berba egin ostean kanpainan parte hartzen ari diren brigadak atsedentokia garbitzen hasiko dira. "Gure asmoa atsedentokia, bertara ondo pasatzerako joan direnek garbi uztea da. Helburua ez da brigadek garbitzaile lana egitea, baizik eta jendea konturatzea norberak sortutako zaborra norberak jeitsi behar duela kalera".

Kontenedorerik eta zakarontzirik ez!

Arrolaren ustez mendian mahaiaik eta erretegiak ipintzea da errazena,



luz Gipuzkoako mendietan 125 tona zabor jaso zen. Gehien elkarte eta artzaien txabola inguruetan pilatzen da. Arautz eta Aloñan, esaterako, 16 tona zabor batu zen.

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

AKORT



Nabarmentzekoa da San Martzialgo zikinkeria. San Martzial egunerako ez da asko geratzen eta inguru ondo zaindu behar dugu. Antzuolan, garbien Gorla eta zikinen Trekutz eta Korrostarratu daude.

"Udalak atsedeen toki bat jartzen badu, erantzun egin behar dio, hau da, mantenimenduz arduratu behar du. Udalarik ez diogu beste munduko-a eskatzen, astelehenetan atsedeen guneetako zaborrak jasotzeko baino ez".

Hala ere, elkarteak ez da mendian zakarrontziak eta jartzearen aldeko: "kontenedoreak jarritz gero, batetik, ingurugiroa zatartu eta artifizialdu

egiten da, gainera zaborra eta zikina bertan lagatzeko gonbitea egiten dibarduzu eta bestetik, orain arteko esperientziak erakutsi digunez,

inor ez da arduratu kontenedoretako zaborra jasotzeaz. Trekutzeko kontenedorea, esaterako, gainezka egoten zen". Arrolaren ustez, irtenbi-

"Mendian ez dago kalean dugun zerbitzurik, ez gauero zaborra jasoko dugun norbait, beraz, norberak sortutakoa norberak jaitsi behar du". Xabier LEGORBURU (Arrolakoa)

dea sortutako zaborra norberak jeistea da, "zorro bat eramatea besterik ez da".

Denon laguntza

Atsedeen tokietan brigadek egingo dute lan. Astebukaerero pare bat brigada aterako dira eta brigada bakoitza bizpahiru lagunek osatuko dute. "Oso garrantzitsua da jende askok parte hartzea, lana arintzeaz gain, kanpaina jende gehiagorengana iritsiko baita".

"Mendia Garbi" Arrola Mendizale Elkarteak antolatutako badu ere, bertan edozein herritarrek eta kanpainaren helburuekin bat datorren edonork har dezake parte. Kontutan izan behar da atsedeen tokien kokagunea Bergara, Urretxu-Zumarraga eta Oñatirekin muga egiten duten parajeak direla.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

BERGARA
Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

LONBIDE
OINETAKOAK




Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Zer moduz igaro dituzu aurtengo jaiak? Zer egin duzu jaietan?




Antonio Alcaide
25 urte, langilea

Ondo pasatu dut baina ez da ezer berezirik egon. Jai guztiak berdinak dira. Ambiente ona egon da baina jende askok alde egin du. Baina merezi du hemen geratzeak.



Ibon Agirre
24 urte, langilea

Gustora ibili naiz nahiz eta azken bi egunetan, azterketengatik, lasaiago ibili. Bestela beste urte batzutan baino ambiente gehiago egon da.



Ignacio Eguren
65 urte, jubilatua

Kanpoan egon naiz, Noja eta Isla aldean. Aurten lehen aldia izan da jaietan alde egin dudala eta jaietako gauza gutxi ikusi dut... Pelota partidua ondo egon zen.



Ainara Altuna
13 urte, ikaslea

Oso ondo pasatu dugu kalean eta barraketan. Gauean? 3rak arte gutxigorabehera. Ambiente polita egon da eta egunik onena asteartea izan zen.



Felisa Larrañaga
86 urte, etxeoandrea

Jubilatueta egon gara gu. Baina jaiak asko gustatzen zaizkit: astelehenean be Espoloiko kontzertuan izan ginene eta oso ondo pasatu genuen.



Olatz Arrieta
24 urte, langilea

Antzuolakoa naiz eta ez naiz etorri. Aspertuta nago hemengo ambienteaz, nahiago dut Zumarrag aldera joatea.

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49



Betiko martxan berriz

Amaitu dira, bai, 1995eko Pentekostes jaiak, eta nahi gabe konturatu gara betiko martxan sartuta gaudela berriz ere. Hori bai, buruan pentsamendu bat nagusi: laister oporraldia, eskerrak horri!!! Gauzak ez dira asko aldatu jai egunetan, baina azken boladan jazutzen ari garen aldaketak ez dira gure aldekoak izan.

Diruaren prezioak goraka egin du eta gure poltxikoei jasanezko behar izango dute igoera hori. Kontratatuta ditugun kreditu hipotekarioak fijoak ez badira, estatusunak ere izango ditugu hilaren amaierara iristeko. Ez da batere erreza diruaren igoera hau ulertzea, ezta aurrekoak ere, baina oraingoan kontrako ahotsak besterik ez dira altxatu, Gobernu sozialistarena izan ezik, noski.

Langabezia, krisi ekonomikoa, egoera politikoa... Arazo guzti hauei aurre egin behar zaie eta hortarako behar diren neurriak hartu behar dira eta ez Borrell ministroak zabaldu dituen proposamenak onartuz. Berriz ere kaltetuak eta egoeraren ordaintzaile gu izango ginateke.

Proposamen polemikoa benetan Borrell ministroarena ez badute kontrolatzen aurrerantzean etxebizitzaren eraikuntza eta salmenta. Eta egun hauetan polemika sortu duen beste gai bat ere gustatuko litzaidake aipatzea, gaztetxoek "chicle guarro" deitzen duten hori. Ez dut hitzik horrelakorik baloratzeko, bakoitzak bere konklusioa atera dezala, baina hona hemen nere denuntzia.

Ane Miren LIZARRALDE



Bixamona


Udaberriko adarjotzeak Pazkuak salbu laga ditu. Aurten euririk ez da azaldu apenas. Herriratu dira jaiak Saloun egin duten morenozaleak. Hauteskunde aspergarrien gorabehera, numero eta konbinazio posibleak ixiltzen hasiak dira (ehundaka bergarrek ez du botatu eta horren nondik norakoak, non? abstentzioak ez du zaratarik ateratzen, omen). Herriko trenbidean 25 urteko gazteak emakumea biolatu nahi izan du. Baina honek aparteko bat merezi du, sakontasunean landutako txokoa eta jaien bixamonean ez naiz horretaz jardungo.

Bitartean, lazo urdinaren inguruan bada nobedaderik -"mas de lo mismo" seguruen-. Callejak, KASeko mamu beltza darrai, gutarren Jose Maria Carrascala. Bere kontrako manifestaldi publikoak baretuta zeudelakoan, orain atera duten "Los que llevan el lazo azul son unos asesinos" karrelean bere irudia agertzen da.

Ez naiz bera zuritzera edo zeruratzera etorri. Are gehiago, periodista belijerantea dela dioen lagunak ez du arrazoizko faltarik. Halere, informazioa gaizki josteak bideratzen al du edozein iraindu, kolpatu ala lurperatzeak? Norberaren esanerako komunikabideak euki beharko genituzte. Gainera, kontuz! Txuri-beltz kultura hain errotua dagoen herrian, beltzaren kontra azaltzeak, zuriaren alde egotea da, tarteko kolorerik ez balira bezala...

(Konturatu al zarete Callejak lazoa ez daukala aldian?)

Ainhoa ALTUNA



TOSHARE

☎ 76 29 70

**SANTOS
IRRATI-TB**

**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10




San Martin de Agirreko 8. mailakoak Kataluinan ikas bidaian izan ondoren etxera itzuli dira jaietarako.

Ikasbidaia ahaztezina

Aurreko astean **San Martin de Agirre** ikastetxeko 8. mailako ikasleak ikas-bidaian izan genituen. Ikasturtearen azken txanparen aurretik ikasleek liburuak egun batzuetarako ahaztu eta aste atsegin bat igaro dute elkarrekin Kataluinako kostaldean, **Tossa de Mar**en hain zuzen ere. Eguraldiak lagunduta hainbat bisitaldi egiteko aukera ere izan dute eta, besteak beste, Bartzelonako Zientzia Museoan, Figuereseko Dali Museoan edota Lloret de Mareko Agua-Parcen izan dira. Jaietarako Bergarara itzuli ziren eta izango zuten bai familiartekoei eta laguner zer kontatu...

Berriz ere Euskadiko txapeldun

Edu Muruamendiaraz bergarar dantzariak Gipuzkoar Aurrekuko Euskadiko Txapelketa irabazi zuen bigarren urtez jarraian igandean **Pasai Antxon**. Muruak, sari gisa, Mikel Kristiren trofeoa (datorren urtean berriz irabaztekotan bere esku geratuko litzateke), urrezko domina, Pasaiko Udala, Euskal Dantzarien Biltzarra eta Kutzaren trofeoak, txapela, gerrikoa eta 35.000 pezeta eraman zituen. Bere atzetik Ramón Sánchez irundarra eta Jose Ignacio Viguera donostiarra sailkatu ziren. Guztira, 21 dantzari aritu ziren lehian. Zorionak Edu Muruarentzat!!



Edu Muruamendiarazek Euskadiko aurrekularirik onena dela erakutsi du berriz



umelaga

JATETXEA


IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA



16.30etan zaldiekin jolasak. Ikusgarria izango da, dudarik ez, horrenbeste *bakero* Elosu aldean ikustea... *Western* bat errodatzeko modukoa!!

Zaldizaleak Elosun

Igandean inguruko zaldizaleak Elosun bilduko dira goizeko 11 t'erdietan. Guztira, 60 bat zaldizale etorriko direla espero da eta programa honako hau izango da: 12etan hamarretakoa, 12.30etan bi orduko martxa Trekutz aldera, 14.30etan bazkaria eta

Zertan dihardute ba?



Agustin Aranzabal

Realeko 22 urteko jokalaria bergararrak Espainiako selekzioarekin debutatu zuen atzo Sevillan Armeniaren aurka. Aranzabalek partidu osoa jokatu zuen, 3 zenbakiarekin eta defentsa ezker aldean. Partiduko gol bakarra bere hanketan hasitako jokaldi baten ondorioz etorri zen. Julio Salinasek Aranzabalen erdiraketa bat errematatu ondoren, Armeniako defentsa batek eskuz urrunduzuen baloia eta ondorengo penaltia Hierrok sartu zuen. Bergararrak partidu ona jokatu zuen eta kirol kazetariak beren aktuaioa goraiatu dute. Zorionik beroenak Agustinentzat.

Udaberriko kontzertua



Musika Eskolako taldeek Udaberriko Kontzertuaren VII. edizioa eskeiniko dute igandean 12.30etan Espoioian. Orkestra Sinfonikoak Wagneren "Tannhauser" izeneko lana joko

du, Akordeoi Orkestak "Oboe concerto" (Telemann) eta, haurren abesbatzarekin batera, "Raven feather" (Guoch-Tarfrey). Azkenik, Orkestra Txikiak, honako lan hauek interpretatuko ditu: "Reflections" (Davis), "Misty blue" (Osterling) eta Bergarako Musika Eskolako martxa (Alfredo Glez. Chirlaque). Bestalde, kontzertuaren ondoren egitekoa zen herri bazkaria bertan behera geratu da jende gutxi apuntatu delako. Txartela erosita zutenei dirua bueltatuko zaie Musika Eskolako bulegoan, 5etatik 9etara.

LARRAÑAGA eta ZUBIA Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

A mets



• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak

• Zango erremolkeak

• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI

Felisa Txintxurreta

Felisa Txintxurreta duela 66 urte Antzuolako Arlutz baserrian jaio zen. Urteetan bizi da kalean, baina baserria ez zaio ahaztu. Ortuan ibiltzen da, loreak ditu oso gustoko... baina asteburuetan Gorlako kantinan egoten delako ezagutzen dugu.

- Asteko zein egunetan jaio zinen?

- Ez dakit, ideiarik ere ez.

- Zein horoskopo duzu?

- Leo.

- Irakurtzen duzu esaten dizutena?

- Ohituragatik, bestela ez dut federik.

- Eta zortean sinisten duzu?

- Kotxe bat, 127 bat, eta liburu batzuk baino ez zaizkigu tokatu.

- Kantina luzerako izango al da?

- Aisialdirako gunea egiten ari dira eta ez dakigu zer gertatuko den.

- Noiz egoten da irekita?

- Zapatu arratsaldetan, domeketan egun guztian.

- Noiztik zabilzate bertan?

- Orain dela 24 urtetik.

- Zer da zuretzat kantina?

- Distrazio bat eta lagun asko egin



"Oso gustoko ditut kantinan lagunekin egiten ditugun tertuliak eta karta jokua. Kantina distrazio bat da, egunen batean ezertarako gogo barik jeikitzen naizenean, Kantinara joan eta pasatu egiten zait".

ditut bertan.

- Zer duzu kantinan gustokoen?

- Lagunekin jokuan ibiltzea.

- Zein jokutan?

- Gizonak musean eta emakumeak punttuan.

- Asteburuetan zer egitea gustatuko litzaizuke?

- Hondartzara joatea.

- Ametsetako bidaiarik, bai?

- Mareatu egiten naiz eta inguruan ibiltzen naiz.

- Ilargiari begiratzen diozu?

- Askok, ilea mozteko, orturako...

Gurean Zaragozano egutegia beti egoten da.

- Ortuan ibiltzen zara?

- Bai, baserria ezin da ahaztu.

- Abererik baduzue?

- Txakurra, ardiak...

- Zein lore duzu gustokoen?

- Liliak, mendafinak... ditugu, baina gustokoenak larrosak.

- Josten badakizu?

- Bai, eta puntua egiten ere bai.

- Sukaldean nola moldatzen zara?

- Ondo bakailaua eta potajea ateratzen zaizkit..

- Nor gonbidatuko zenuke zuenera?

- Familiako juntaizak gustatzen zaizkit.

- Festazalea zara?

- Ez, tertulia egitea nahiago dut.

- Jaietan ezer berezirik?

- Senarrarekin afaltzera joatea.

DANTZARIAK • TXALAPARTA • ARRASATE

MUSIKAL BANDA • BITTOR AIAPE

SEBASTOPOLEKO

TITIRITEROAK • KAXIANO


MARKOS LANDA

BERTSOLARIAK

ANTZERKIA • GOZATEGI

HAUR JOLASAK • KONTRAIRO

ARKAITZ • OSKORRI • EXKIXU • E.H. SUKARRA...



ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Deban udan. Plaia eta Alameda alboan. ☎ 76 58 91 (gauetz).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 05 86.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Estudioa alokatzen da Benidormen. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Donostian. ☎ 76 31 79.

Garajea salgai Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 908-57 96 39.

DENETARIK

Denda karroa salgai. ☎ 76 21 96.

Kawasaki ZXR 750 motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Suzuki 442-S motor txikia salgai. ☎ 76 25 31.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Karabana bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauetz).

5 hilabeteko **Collie-artzai** txakur bat operituko nuke. ☎ 76 50 58 (Beatriz).

Altzariak salgai egoera onean. Ohea eta armario roperoa. ☎ 76 07 87.

Opel Astra kotxea (BI-BP) prezio onean salgai. ☎ 70 23 84 (Fernando).

Opel Kadett kotxea salgai. ☎ 86 14 16 (Nekane).

Logelako altzariak salgai. 2 ohe, 4 ateko armario bat eta "secreter" aulki bat. ☎ 76 47 27.

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Txakur emea estaltzeko **doberman** har bat behar dut. ☎ 76 57 67.

Ekainaren 11n 6etan Bilbotik etortzeko kotxea behar dut. Bidaia ordaintzen dut. ☎ (94) 411 16 66.

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingeleza, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Zaharrak edo **haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 18.

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxean lan egin eta **haurrak** zaintzeko **neska** edo **andra euskalduna** behar da. ☎ 76 55 86.

Sukaldari bat behar da Valle de Aranen (Lleidán) lan egiteko. ☎ 76 43 96.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

23 urteko **mutil batek** astebukaeretan **lan** egingo luke. ☎ 76 64 65 (gauetz).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

**INGELES
FRANTZESA**

UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK

- **NOIZ:** Ekainaren 26tik uztailearen 14ra
- MAILA GUZTIAK
- ADIN GUZTIAK
- **Haurrak**
- **Gazteak**
- **Helduak**



INFORMAZIOA:
Bergarako UNED. (3. pisua)
☎ 76 06 87

BONOFOTOA



Amaia Baz

Amaia Bazek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galderak berak asmatu baititu. Argazkian agertzen zen idatzia **Udaletxeko Pleno Aretoan** aurkitzen da eta idatzi horrek aipatzen dituen gizon argidotarren artean **Juan de Jauregi** jaio zen orain dela 400 urte, 1595.ean. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Amaia Bazi** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da Osintxuko elizaren izena eta noiz da santu horien eguna?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



Angiozar, Ufala eta Arloteak taldeek kopako finala jokatuko dute igandean



Ligako txapelketa eskuratu ondoren, koparen bila Angiozar.



Arloteak taldeak lan bikaina egin du ligan ere.



Ufalak ustekaberen bat eman dezake igandean.

Igandean arratsaldeko 5etatik aurrera jokatu da Labegaraietako futbito txapelketaren kopako finala. Angiozar, Arloteak eta Ufala izango dira aurrez aurre. Izan ere antolatzaileek udako torneoek erabiltzen duten jokatzeko sistema erabiliko dute. Hirurek elkarren aurka jokatuko dute 25 minututako 3 partidutan. Hiru taldeek denboraldi bikaina burutu dute, guztiak ere aurrean izan baitira bai kopan eta bai ligan. Jokatzeko erabiliko den sistemak pronostikoak erraztu beharrean zaildu egin ditu eta ezin dezakegu esan nor izango den garailea. Halere norbaiti eman beharko zaio faborito papera eta hor daude angiozartarrak eurak izan baitira Ligako txapeldunak. Baina Arloteakek eta neurri txikiago batean Ufalakek zail jarriko dizkie gauzak eta kopa irabazi nahi duenak buruarekin jokatu beharko du. Partiduen ordena ez dute zehaztu oraindik antolatzaileek eta finalaren ondoren liga eta kopari dagozkien trofeo eta sariak banatuko dituzte.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Eugi eta Galarza Pentekostes txapelketako onenak

Eugi eta Galarzak 22 eta 19ko emaitzarekin irabazi zien Unanue eta Lasari Pentekoste ferriako finala. Frontoiak sarrera ona izan zuen eta lau pelotariek ikuskizun polita eskeini zuten. Kazetari eta ikusle gehienen eritziz Oscar Lasa Etxarriko atzelaria izan zen partiduko onena.

Arrantza lehiaketa igandean

Arrantza txapelketa antolatu du Oilgorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak datorren iganderako San Juan errekan. Parte hartzeko goizeko 8ak baino lehen bertara agertu beharko da. Bi maila bereiztuko dira, 14 urtera artekoena eta 14 urtetik gorakoena.

Futbolin txapelketa larunbatean

III. Futbolin Openeko finalak jokatuko dira zapatu arratsaldean 4etatik aurrera Seminarioan. LAMek antolatu du eta hiru sari banatuko dira, 100.000, 50.000 eta 25.000 pzta.koak hiru onenentzat.

Futboleko lehen mailako jubenilak mailaz igo dute

Lehen mailako jubenilek joan zen larunbatean Ordizian Hondarrabiren aurka jokatutako partiduan 4 eta 3 irabazi zuten. Emaitza horrekin Fernando Oregi eta Pedro Jausorok entrenatzen duten taldeak bere kategoriako txapeldun izatea lortu du. Hori gutxi bada, datorren urterako mailaz igoz dute eta Ohorezko Jubenenil Ligan izango dira bergarrak.

Jubenilek lan ona egin badute, ez da gauza bera gertatu Lehen Erregional mailako taldearekin, izan ere kategoriari eusteko lehian etxean jo-



Argazkian, joan zen zapatuan mailaz igoztea lortu zuen taldea.

kutatuko partiduan 2 eta 1 galdu zuten Zarautzen aurka. Igandean Zarautzen jokatuko dute 4,30e-

tatik aurrera eta mailan eutsi nahi badiote ezin bestekoa izango dute golez irabaztea.

Flores Euskadiko onena



Markiegik (ezkeretik lehen) bergararrik onenaren saria jaso zuen.

Igor Floresek (Caja Rural irabazi zuen pasa den igandean Bergaran jokatutako afizionatuena Euskadiko txapelketa. Txirrindulari nafarrak errepikatu egin zuen joan zen urteko garaipena eta Euskadiko txapelduna izateaz gain, Nafarroako ere irabazi berri du. Bi segunduko aldea atera irabazleak tropelari. Bestalde Ander Markiegik lehen bergararraren saria jaso zuen.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
 ☎ 76 13 35



☎ 76 20 61



gizon emakume
 Barrenkale, 35 BERGARA

KARTELDEGIA

► **Xakea**

Bihar arratsaldeko 4retatik aurrera Migel Altuna institutuan Euskadiko Xake Partida Azkarren Txapelketa izango da. Arabatik, Gipuzkoatik, Nafarroatik eta Bizkaiatik etorritako 26 talde izango dira guztira. Horrezaz gain, igandean goizeko 10etatik aurrera eta toki berean Bergara Hiria xake txapelketa jokatuko da. Antolatzaileek, Bergara Xake taldekoek, estatu mailako jokalaririk onenetarikoak ekarriko dituzte. Horien artean Oviidotik etorriko diren David Bronstein eta Elizbar Ubilava, baita Madrileko txapelduna ere eta Galizatik, Kataluniatik, Kantabriatik eta Estatuko beste hainbat tokitatik etorritako xakelariak izango ditugu.

► **Igeriketa**

Larunbatean goizeko 9,30etatik aurrera Abiadura Igeriketako Euskalerriko txapelketa jokatuko da Udal Igerilekuan. Bertan 14 urtetik gorako Euskalerriko osotik etorritako 150 igerilarik hartuko du parte, Bergaratik ez da partehartzailerik izango. Distantzia motzeko probak, 25m eta 50mkoak, jokatuko dira.

► **Pelota**

Larunbatean amaituko da pelotari profesionalen denboraldia Udal Pelotalekuan. Etxaniz eta Lasa III, Nagore eta Zezeagaren aurka jokatuko dute estelarrean. Larunbata 16.30. Udal Pelotalekua.

Felix Alberdi

Bolo kontutan jaun eta jabe

**Felix Alberdi Angiozar-ko Mendigutxi baserri-koa da eta duela gutxi jokatu den Jubilatuentzako bolo txapelketa-
ren irabazlea izan da 62 urterekin oraindik ere gerria fin duela erakutsiz.**

- **Noiztik egiten duzu bolotan?**

- Gazte denboran 22 urtera arte asko egiten genuen bolotan. Gero oraintxe puntura arte ez dut asko jokatu. Halere auzoko jaietan edo ferixetan ibili izan naiz.

- **Horrenbeste denbora pasa eta gero zela hasi zara berriz jokatzen?**

- Gabonetan hasi eta 6 zapatutan Elgetan hasi eta Untzillan, Aretxabaletan, Azitainen etab. etan erregulartasunaren txapelketa jokatzen zen eta lagunek esan zidaten apuntatzeko. Horrela iaz lehen aldiz joan nintzen eta 2. atera nuen eta aurtentzen, aldiz, lehena.

- **Bolotan ondo egiteko zer da beharrezkoa?**

- Afiziñua eta gerrixa biguna!. Bultza edo kolpea ematen badiozu gaizki, boloa liso eta suabe bota behar da. Eskua ere garrantzitsua da, baina eskua gerriak eramaten du. Hor dago jokoaren meritua. Ez dut entrenamendu konkreturik egiten, beti lagunartean ibiltzen gara jokatzen.

- **Zenbat partaide izan zarete txapelketan zehar?**

- Nire kategorian, Ju-

bilatuetan, 80ren bat aritu gara zapaturu eta tiraldi bakoitzeko puntu batzuk ematen dizkigute, ondoren 6 tiradetan punturik gehien lortzen dituenak txapelketa eramanen du.

- **Herri kiroletan apostuak egiteko ohitura dago, bolotan ere ohitura hori ba al dago?**

- Ez ez da egoten aposturik, bakoitzak 500 pza. botatzen ditu jokatze eta batzen denetik portzentaia bat irabazleei ematen zaie. Bestela ez,


ez dago aposturik.

- **Ze sistema erabiltzen da bolotan jokatze-ko?**

- Batetik boloa dago eta bestetik txirloak. Tiraldi bakoitzean botatako txirlo bakoitzeko puntu bat izaten da.

- **Lehen gazte denboran ohitura gehiago zegoen, ez?**

- Bai, lehen jai guztietan bolok izaten ziren. Horretaz aparte igandero jarduten genuen Angiozarren genuen bolatokian gaueko 10ak arte. Jo ta fuego! ibiltzen ginen.



"Eskua garrantzitsua da, baina eskua gerriak eramaten du".

"Bolotan ondo egiteko afizioa eta gerria biguna izan behar dira, eta boloa suabe bota"



Eibar 1 Or-Konpon 1

1 948ko iraillan 14an, Eibar eta Bergarako Or-Konponek futbol partida jokatu zeben. Eibarrek, Alfak erregi lautako markadorea estrenatu zeban, eta posturak zaren baietz Eibarrek Or-Konponi zortzi gol egin. Eibar kategoria tegorixako ekipua zan, Athleticen jokalarixak zauzkan. Baiña, ez zan hola izan, partidu guztian Eibar 1 eta 0 irabazten joan eta gero, minutu bi falta zienian Or-Konponek enpatia lortu zeban.

Aipagarriak dien gauzen artian be, aittatu, Or-Konponek partidu hau gorritz jantzita jokatu zebala, betiko diña erabili biharrian eta deskantsuan lehen ohituria zan moduan kafia eta Martella hartu zebala. Ah! eta es jokalarik bakoitzak 200 pta. jaso zittuala partidua berdintziagaittik.

Ezkerretik eskumara:

Zutik: Manolo Ruiz, Bixente Xabale, Vitoria (Arrasatekua), Juanito Irigoien, Akei, Anastasio Berezibar (Elorrixokua), Jesus Ibañez.

Jarritta: Pedro Eriz (Elorrixokua), Lazaro, Fernando Etxaniz, Roman Lizarralde, Herminio Urizar.

Felipe Iñarra

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

GPC Jokabideen Psikologia Kabinetea
J.R. FERNANDEZ Kol. Zenb. E-2346

*Antsietate, obsesio, depresio eta
stresaren diagnostiko eta
tratamendua, peritaje
psikologikoa. RPS: 33-95*

Ramon Maria Lili 2, printzipala
eskuma ☎ 76 59 39 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZA

Kruz Gallastegi, 2 behe
☎ 76 23 48










GOGORATU! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguru aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitez. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.

 **MAPFRE**
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

40
AÑOS-URTE

HACIENDO
LAGUNAK

AMIGOS
EGITEN



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores,
dotoretasunez apaintzen
duten kalitatezko
altzariak, Garibai, 9an.



**Amuebladora
Mondragonesa**

centro hogar
prezio-kalitate onenean
denentzat altzariak gure
pabilioi izugarrian,
Zigarrola, 1ean.



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. sukaldeak
sukalde altzariak XEYren
garantiaz, Zerkaosteta, 3an.

Irabaz ezazu mountain-bike
bat bakarrik gu
bisitateagatik, EDO
HOBETO, ERAMAN EZAZU
DOHAINIK zure altzariekin.

